



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA

Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 4koa, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, Sestaoko (Bizkaia) Naval eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua ematen duena.

AURREKARIAK

2022ko azaroaren 18an, Sestaoko Udalak eskabidea aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, Naval eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egin zezan, bat etorrita Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak V. eranskinean dakarren formularioa. Dekretu horrek planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren prozedura arautzen du.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Sestaoko Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumenaren arloan egoki iritzitako oharrak egiteko.

Behin txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatutakoan eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean eragin nabarmenak izateko arriskua dakarrenean; horretarako, ingurumena babesteko maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei, bai eta haien aldaketei eta berrikuspenei ere (II.A eranskinean zerrendatu dira), legezko edo erregelamenduzko edota Gobernu Kontseiluaren xedapen batek beharturik prestatu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.



Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen ditu irismen-dokumentuaren hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, lege horri aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziatzko dokumentuaren edukiaren eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren ingurukoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraiki, espedienteko txostenak aztertu eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Naval eremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako bakarrik eta honako baldintza hauetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Planaren xedea da Sestaoko udalerrian orain gutxi arte itsasontziak eraikitzekeo jarduerak hartu duen hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua aldatzea.

293.151,53 m² ditu planaren xede den eremuaren azalera (jasotze topografikoaren arabera), eta Naval ontziolako industria-instalazioak zeuden bertan, Nerbioi-Ibaizabal itsasadarraren ezker aldearen aldamenean. Itsasontziak eraikitzekeo jarduera desagertu denez, indarrean dagoen hirigintza-plangintzak aurreikusten duen antolamendua zurrunezia da eta beste industria-jarduera batzuk ezartzea mugatzen du.

Ontziolen parte diren eraikin eta instalazio batzuk babestuta daude maiatzaren 24ko 67/2022 Dekretuaren bidez, kultur interesekoak direlako (67/2022 Dekretua, maiatzaren 24koa, zeinaren bidez «La Naval» ontziola, Sestaon (Bizkaia) kokatutakoa, babes bereziko kultura-ondasun deklaratzeko baita, monumentu-multzoaren kategoriarekin). Beraz, babestutako elementuen mugak kontuan hartuta egin da antolamendu xehatua.

Eremuak erabilera bereizgarri hau izango du eta hirigintza eraikigarritasunaren %50 baino gehiago hartu behar du: industria kategoriako erabilera produktiboa, 4 eta 5 azpikategoriaduna (Sestaoko HAPON ezarritakoarekin bat etorriz). Planak industria-ekoizpeneko erabilera izango duen eremu handi bat mugatzen du, 209.291 m²-ko azalera. Eremuari, gehienez ere, 127.810 m²-ko hirigintza-eraikigarritasuna esleitu zaio, eta 118.397 m²-ko partzela-okupazioa.

Produkzio-eremu horri 3 maila esleitu zaizkio:

- 1. maila; eraikingintza babestua izango du eta 40.517 m²-ko azalera. Maila honetan Navaleko monumentu-multzoan mugatutako eraikinak sartzen dira, zeinak babes-araudiaren mende baitaude. Bi gunetan banatzen da; eremuaren mendebaldean, bat, eta hego-ekialdean, bestea. Gehieneko garaiera eta gehieneko solairu kopurua lehendik daudenak izango dira; gehieneko garaiera % 10 handitu ahal izango da, behar funtzional justifikatuak badaude, betiere, foru aldundiak baimena eman ostean. Monumentu-multzoan dauden bi ekoizpen-eraikinak handitzea onartzen da, maiatzaren 24ko 67/2022 Dekretuan jasotako zehaztapenak errespetatzen badira. Nahitaezko eraikingintza-lerrokadura hiri-antolamendurako plan bereziaren planoan dago adierazita.
- 2. maila, eraikingintza berrikoa; eremuaren zatirik handiena hartzen duen pastilla handi bat da. 183.034 m²-ko azalera du eremu honek. Gehieneko garaiera 22,00 m izango da; salbuespen gisa, handitu egin daiteke gehieneko garaiera hori, industria jarduera berezi bat garatzeko behar funtzional justifikatuak badaude. Erabilera nagusiari lotutako bulegotarako pabiloiek, gehienez ere lau solairu izango dituzte.
- 3. mailak 2.434 m²-ko eremua izango du, eta aparkalekuetarako izango da; eremuak hegoaldean muga egiten duen industrialdearen espazio publikoaren inguruan dago.

Erabilera nagusia 4. eta 5. kategorietako ekoizpen industrial da. 1. mailako eremuan, bulego kategoriako hirugarren sektoreko erabilera onartzen da, industria jarduerari lotua, eraikin salbuespena. 2. mailako eremuan, biltegien kategoriako erabilera produktiboa eta bulegoen kategoriako hirugarren sektorekoa onartzen dira.

Zuzkidura publikoko eremuekin osatzen da antolamendua; hau da, portu- eta ibai-komunikazioen sistema orokorrarekin, espazio librean eta berdeguneen tokiko sistemarekin eta tokiko bide-sistemarekin.

Eremuaren hegoaldean beste bide bat egitea proiektatu da, lehendik dagoen bide baten paralelo. Horrela, bide-ardatz horren ahalmena bikoizteaz gain, sortuko diren lursail berriak inguruan lehendik daudenetatik bereiztea lortuko da. Bide berria ekialderantz eta ipar-mendebalderantz luzatuko da, itsasadarrarekin bi konexio publiko berri sortzeko, oinezkoentzat eta ibilgailuentzat; Navaleko monumentu-multzoan babestutako kultura-ondasunetara iristea ere ahalbidetuko du.

Espazio librearen eta berdeguneen erabilerarako tokiko sareko lurren lagapena berdegune handi bat izango da, antolamendua egituratuko duen bide berriak ipar-mendebaldera izango duen luzapenaren inguruan; 17.707 m²-ko azalera izango du.

Gainera, eremuaren eta eremuak muga egiten duen hegoaldeko eremu publikoaren arteko elkargune egokia bermatzeko, kanpoko hiru urbanizazio-eremu mugatu dira.

Plana garatzeko, gaur egun planaren eremuan dauden egiturak eta eraikinak eraitsi behar dira, ondare-interesagatik babestuta daudenak izan ezik. Horien artean daude bi dike lehor, zenbait garabi eta oinezkoentzako pasabide bat, eremua tren-geltokiarekin eta Sestaoko bizitegi-hirigunearekin lotzen duena, zeina birgaitu egingo baita. Halaber, Navaleko monumentu-multzoan eta haren luzapenean dauden trenbideak kontserbatu egin behar dira, eta eremu publikoan ahalik eta eragin txikiena izaten saiatu behar da, 2. mailako industria-kategoriako ekoizpen-eremua egin arte. Orduan, eta behar izanez gero, trenbidea 2. eremu horren barnealdetik luzatzeko baimena emango da.

Hiri-zerbitzuen azpiegiturei dagokienez, behar diren sare guztiak pasatzen dira ingurutik, zeinak planaren garapenerako behar diren zuzkiduretarako nahikoa ahalmen baitute (ur-hornidura, euri-uren drainatzea, hondakin-uren saneamendua, elektrizitatea, gas naturala eta telefonia eta telekomunikazioak).

Hondakin-uren saneamendu-sare berezia diseinatu da. Euri-urak zuzenean isuriko dira Nerbioi itsasadarrera, koipe-bereizgailuetatik igaro ondoren. Industria-jardueretatik datozen urak jatorrian araztu beharko dira, saneamendu-sare orokorrean sartu baino lehen.

Hiru antolamendu-aukera diseinatu dira (A, B eta C). Hasierako dokumentuan azaltzen da, ingurumenari dagokionez, ez dela alde esanguratsurik ikusten planteatutako 3 aukeren artean, eta sortuko diren inpaktuak antzekoak izango dira guztietan. Arrazoitzen da zein aukeraren alde egin erabakitzeko irizpide hauek hartu behar direla kontuan: diseinua, hirigintza-araudira egokitzea eta dauden babes-plan, -programa eta -figuren bidez proiektuaren esparrurako ezarritako helburuak lortzea.

2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak (211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) eta abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburuak eta printzipioak (10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa).

Halaber, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta modu intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatzeetik babestuta.
- b) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- c) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- d) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- e) Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- f) Sustatzea energia aurrezteko, energia berriztagarrien efizientzia eta erabilera eta kogenerazioa.
- g) Aire garbia bermatzea, eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea.
- h) Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitze neurriak integratuz.
- i) Arrisku naturalak minimizatzea.
- j) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduera indartuz.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-gune garrantzitsuak

Plana XIX. mendearen amaieratik itsasontziak fabrikatzeko industria-jarduerak okupatutako lurzoruetan garatuko da, Naval ontziola izenekoan. Gaur egun, eremu hori eraisten ari dira, ezinezkoa delako instalazio horietan ontzigintzako negozioarekin jarraitzea.

Eremuak hauekin egiten du muga: iparraldean eta ekialdean, 1.286 metroko luzeran, Bilboko itsasadarrekin; mendebaldean, industria jarduerekin, eta, hegoaldean, berriz, Bizkaiko Labe Garaiak kalearekin eta beste industria jarduera batzuekin.

Hiri-lurzorua da, guztiz antropizatua, eta garapenerako baldintzatzaile nagusi hauek ditu:

Kultura-ondareko elementu babestuak daude. Maiatzaren 24ko 67/2022 Dekretuaren bidez, Sestaoko (Bizkaia) Naval ontziola babes bereziko kultura-ondasun deklaratu zen, monumentu-multzo kategoriarekin. Babestutako elementuak dekretu horren eranskin gisa ageri den planoan datoz zehaztuta.

Mugaketa horren barruan, bi eremu bereizten dira: bat, multzoaren mendebaldean, zeinak oinezkoen pasabidea, tailer mekanikoa, jantokien eta botikinaren pabiloia, bulego nagusiak, zentral elektrikoa eta tailer mekanikoa, barneko trenbideak eta horien babes-eremua hartzen baititu; bigarrena, lursailaren ekialdeko muturrean, zeinak dike lehorrak eta makinak eta galdaren lantegia, elementu horien babes-eremua eta garabietako batzuk hartzen baititu.

Eremuaren zati bat itsas-lehorreko jabari publikoaren barruan eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren bide-zortasun, babes-zorgune eta eragin-zortasuneko eremuetan dago.

Esparruaren zati bat uholde-eremua da. Planaren zirriborroak azterlan hidrauliko bat du, 2021eko azarokoa. Dokumentu honen arabera, uholde-eremu bakarrak itsasontziak eraikitze eta uretaratzeko harmailak dira 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denboretarako. Egungo egoeran, harmailak fluxuaren albotik geratzen dira urpean, baina ez du fluxuan eragiten; izan ere, ontziolaren zabaldegia kota orokorrekiko deprimitutako eremuak dira (jakina denez, eremu horiek ontziak itsasadarrera sartzeko erabiltzen ziren).

Azterlan hidraulikoaren arabera, harmailak + 3,50 kotara betez gero, lursail osoa uholde-mugetatik kanpo geratuko da.

Lurzoru kutsatuak. Naval Plan Bereziaren eremuko lurzoruak kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen EAEko inbentarioan daude sartuta, Geoiker 48084-00027 kodearekin.

Hasierako dokumentuak adierazten du industria-aurriaren azterketa egin dela, eta hauxe aztertu dela: utzitako materialen/hondakinen inbentarioa, karakterizazioa eta sailkapena; eraikinen kutsaduraren ikerketa eta utzitako materialak/hondakinak kentzeko jarraibideen garapena. Era berean, lurzoruaren kalitatea ikertzeko lanak hasi direla adierazi du. Esplorazio-ikerketa horretan lortutako emaitzen arabera, kokalekuko lurzoruari eta lurpeko urei eragiten die, eta, beraz, ikerketa zehatza egin behar da.

Planak proposatutako garapenaren inpaktu esanguratsuenak, a priori, obra-fasearekin daude lotuta. Fase horretan, gaur egun dauden eraikinak eraitea (kultura-balioagatik babestutako eraikinak izan ezik) eta eraikin berriak eraikitzea sartzen dira. Horren ondorioz, hondakinak eta hondeaketa-soberakinak sortuko dira, lurra mugitzean urak kutsatzeko arriskua dago eta ustekabeko isuriak egon daitezke. Beste inpaktu posible batzuk emisio atmosferikoen eta akustikoen herritarrei eragindako eragozpenekin lotutakoak dira.

Planaren aurreikuspenak gauzatu badira ere, ezin da jakin eremuan zer industria mota ezar daitekeen. Nolanahi ere, prebentzio- eta babes-neurriak hartu beharko dira, Nerbioi itsasadarreko uren kalitateari eta atmosferaren kalitateari eragin diezaioketen inpaktuak saihesteko.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Planaren xede den eremuan ez da detektatu jarduketak egiteko eremu desegokirik, baldin eta aplikagarria den ingurumen-araudia betetzen bada, batik bat, arlo hauetan: kultura-ondarearen babesa, sistema hidrologikoaren zainketa, uholde-arriskua, lurzoruaren kutsadura eta kutsadura akustikoa.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko izapidean jasotako txostenetako ingurumen-alderdi garrantzitsuenak laburbiltzen dira:

- Ingurumen azterlanak plana gauzatzen den bitartean uren kalitatean izan dezakeen eragina aztertu beharko du, prebentzio-neurriak kontu handiz diseinatuz sedimentuak, lurrak edo lohiak sartzea saihesteko.
- Kultura-ondareari dagokionez, uste da planean aurreikusitako antolamendua eta erregulazioa bateragarriak direla maiatzaren 24ko 67/2022 Dekretuaren III. eranskinean ezarritako babes-araubidearekin (67/2022 Dekretua, maiatzaren 24koa, zeinaren bidez «La Naval» ontziola, Sestaon (Bizkaia) kokatutakoa, babes bereziko kultura-ondasun deklaratzeko baita, monumentu-multzoaren kategoriarekin). Hala ere, dokumentuak ez du behar adinako zehaztasunik babestutako ondasunen eta ingurunean egin daitezkeen esku-hartze onargarriei dagokionez, ezta kalteberatasun handiko ingurune batean hiri-paisaia berria osatuko duten eraikin berrien formalizazio bolumetrikoki dagokionez ere.
 1. eta 2. dike lehorren, hari lotutako ondare higigarriaren eta babes-ingurunearen ondare-balio bikaina eta berezitasuna kontuan hartuta, berariaz arautu beharko lirakeke planaren hirigintza-arauetan, maiatzaren 24ko 67/2022 Dekretuaren babes-araubide espezifikoak garatzeko, eta, hala badagokio, 1. gradukotzat kalifikatu beharko lirakeke, babestutako gainerako eraikinak bezala.
 Hirigintza-araudian berariaz jaso beharko da 6/2019 Legearen 46.2 artikulua aipamena. Horren arabera, udalak monumentu-multzoko ondasun babestuetan esku hartzeko ematen dituen lizentziak *“hamar eguneko epean jakinarazi beharko zaizkio dagokion foru-aldundiari, eta hark agindu ahal izango du ukitutako ondasuna jatorrizko egoerara lehengoratzeko, baldin eta esku-hartzeak onartutako babes-araubidearen aurkakoak badira.*

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien zehaztapen eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Horren arabera, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak alderdi hauetan sakondu behar duela, jarraian adierazten diren zabalatasunarekin eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzearen ondoriozko etorkizuneko ekintzetatik zeintzuk dakarten ingurumenean efektu kaltegarriak izateko arriskua. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak barne hartuko du Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat. Gainera, labor azalduko da nola hartu diren kontuan ingurumena babesteko helburuak eta ebazpen honen 2. atalean jasotako jasagarritasun-printzipio eta -irizpideak plana egiterakoan.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, bai eta Planari aplikatu behar zaizkion ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onespene-egintzek, eta zehaztuko da plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren edo ez.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian Planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita Plana gauzatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da; halaber, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren zehaztuko da, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- Sestaoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa; bereziki, uholde-arriskuko eremuei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana.
- Itsasbazterreko Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a.- Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Azterketak Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du, eta haiek lotura izan beharko dute Planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

Horri dagokionez, behar adina xehetasun-mailarekin deskribatuko da Planak azkenean zer garapen-alternatiba onartu duen, eta zer hirigintza-konponbide hartu den ere justifikatu egin beharko da.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarriei buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Azterketak Plana esparru duten eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak identifikatu beharko ditu, eta garapen baldintzak eta proiektu horiek garatzeko unean ahalik eta kalte gutxien sortzeko jarraibideak ezarri beharko ditu.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatueta erabiliko da, ekintza aipatu behar bada ere.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, garapen-tresna edo -proiektu horiei ingurumen-ebaluazioa egin dakiekela aurreikusi beharko da.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera eta Planean ingurumen-efektu nabarmenak ekartzeko arriskua dakarten aurreikuspen eta jarduketak adierazi beharko dira. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituen: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, PDF (geo-erreferentziatuta) eta *shape* formatuetan.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik; hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba —esku ez hartzeko alternatiba— ere hartuko da kontuan, erreferentziatutak hauxe hartuta: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izango duten bilakaera probablea Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren egoera —alderdi nagusiak azalduta— Planaren eragin-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren gaur egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren afekzio-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena (Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak pairatzeko arriskuan diren guneak bakarrik hartuta).

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, datuak zer iturritatik jaso diren adieraziko da, bai eta zer izenburu duten, zer urtetakoak diren eta egilea zein den ere, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurumenaren aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Natura- eta ekologia-intereseko elementuak daudela adieraziko da. Egungo elementuen kontserbazio-egoerari, interes mailari, kalteberatasunari, egungo presio eta mehatxuei eta plana gauzatuta areagotu daitezkeenei buruzko datuak emango dira.

Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileen espezie guztiak identifikatu behar dira.

c. Paisaia. Pertzepzio-ikuspuntutik intereseko elementurik baden aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, lurpeko uren kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Atzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes-maila adieraziko dira. Era berean, aipatuko da zer arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babesa kultura-ondasunari.

f. Apartatu honetan, gainera, beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, eta abar), jendearen bizileku diren guneak -halakorik bada-, ukituta gerta daitezkeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren gaur egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labor-labor jasoko da zein diren planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku nagusiak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita Planak uki ditzakeen alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira Planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik agian arazotsuak diren eremuak detektatu beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeke.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egokia egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahulak edo kalteberak eta abar ebaluatzeke. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-eremu garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu horretan, Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatu dezaketen alderdiak itsas-lehorreko jabari publikoarekin, jabari publiko hidraulikoaren eta kultura-ondarearen babesarekin, uholde-

arriskuarekin, lurzoru kutsatuen kudeaketarekin eta kalitate akustikoarekin lotutakoak dira, eta alderdi horiek aztertu egin beharko dira Azterketan.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-efektuak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen Planean bilduriko ekintzek 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer interakzio dagoen bertan aurreikusitako ekintzen eta haien eragina jasateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitekeen ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektuak dauden, honako hauek bereizita: bigarren mailako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Azterketan 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guztien ingurumen-efektuak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu jarduketa-proposamen berriekin eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragin dituen aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-efektuak.

Hala dagokionean, zehaztu egingo da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriarengan, giza osasunean edo ondasun materialetan ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako Planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, efektua aipatu behar bada ere.

Besteak beste, eragin hauek ebaluatuko dira bereziki:

- Nerbioi-Ibaizabal ibaiari eta itsas-lehorreko jabari publikoaren babeserako zortasun-eremuari eragin dakioken ebaluatuko da, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertuko du Planak zer eragin izan ditzakeen uholde-arriskuari dagokionez, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko plan hidrológicoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokionez, eta aztertuko da Plana Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean jasotakoarekin bat datorren.
- Hondeaketetatik eta lur-mugimenduetatik eratorritakoak; bereziki, lurzoruaren kutsatzaile izan daitezkeen jarduerak egin diren eremuetakoak.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa).
- Planak eremuan dauden kultura-intereseko elementuak kontserbatzeko irizpideekin duen bateragarritasuna aztertuko da.

b. Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Eftuen handitasuna eta irismen espaziala.
- Afektatua izan daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik badagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik badagoen, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitate-estandarrek edo muga-balioak gainditzea eragin dezakeenik.

- Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak kuantifikatuko dira, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliz. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen efektu horien iragarpenean.

c. Halaber, ahal den neurrian, efektuak kartografikoki lokalizatuko dira, eta, orobat, saiatuko da lotzen plan edo programaren zer fasetan gerta daitezkeen.

d. Adieraziko da detektatutako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hala deskribatutako ingurumen-efektuak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa-eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi den Azterketaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-efektu esanguratsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-, kultura- eta paisaia-baliabideak babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta detektatutako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta Azterketako 6.3 apartatuan identifikatutako efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, neurri hauek zehaztuko dira:

- Uholdeak izateko arriskuari dagokionez, Plan Bereziak kontuan hartu beharko du Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren xedapen arautzaileei dagokien I. eranskineko VII. kapituluaren ezarritakoa, urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretu bidez onartutakoa. Bidenabar, itsasoko eta lurreko jabari publikoarekiko mugakide diren lurretarako Itsasertzen Legeriak itsasoko eta lurreko jabari publikoko babeserako zortasun-eremuetako erabilere baimenei buruz ezartzen dituen mugapenez gain, nahitaez bete beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiek eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planeko E.2 ataleko uholdeen aurkako babesari buruzko berariazko erregulazioak.
- Ingurune hidrikoa babesteko neurriak: ingurumen-azterketa estrategikoak behar besteko xehetasunez identifikatuko ditu gainazaleko eta lurpeko uren kalitatea murriztea saihesteko obra-faseko neurriak, eta, era berean, beharrezkoak diren prebentzio- eta zuzenketa-neurriak zehaztuko dira, eremuan finka daitezkeen industria-jardueren ondorioz Nerbioi-Ibaizabal itsasadarrari kalterik ez zaiola eragingo bermatzeko.
- Obrek aldi baterako kaltetutako gainazalean eta esku-hartzerik egin gabe geratuko diren espazio libreetan landareak jarriko dira berriz ere, eta eremura egokitutako landaredi autoktonoa erabiliko da horretarako. Ihebek argitaratutako “Lorategi eta berdegune jasagarriak diseinatze eskuliburua” aintzat hartzea gomendatzen da.
- Planaren eremuan egon daitezkeen flora aloktono inbaditzailearen aleak ezabatzeko jarraibideak eta zehaztapenak jasoko dira, eta eremuan eta ingurunean ez hedatzeko neurri egokiak hartuko dira.
- Planaren eremuan dauden lurzoru kutsatuak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera: Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legea eta ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretua.

- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eremu akustikoak eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta.
- Kultura-ondasunak babesteko behar diren neurriak zehazteko, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emandako txostenean ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.
- Azkenik, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterlan estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketan egon daitekeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko».

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarri edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzear arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat egingo du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak gainbegiratzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Alderdi hauek kontrolatzea izango dute helburu neurri horiek:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeko eragindako ingurumen-efektuak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko ez ezik, horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere bai.
- Aztertzea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta Azterketaren 6.4 apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin etorri beharko dute bat.

c. Ingurumena zaintzeko programan Azterketan proposatzen diren adierazleak jaso behar dira, bai eta datuak biltzeko erabiliko diren metodo eta denbora-tarte zehatzak ere.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean efektu nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-,

zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela efektu nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatueta jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorrotutako gaitako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horrekin batera, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko da; edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioei dagokienez, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du programaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, 45 egunez gutxienez.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, gutxienez, irismeneko dokumentu hau egiteko kontsulta egin zaien administrazio publiko ukituen eta interesdunen eskura jarriko du Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter dezaten. Hauek izan dira kontsulta egin zaien erakundeak:

- Eusko Jaurlaritzako Bizkaiko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordeak
- Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- URA-Uraren Euskal Agentzia
- Ihobe
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza
- Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertz Mugartea, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa
- Euskal Trenbide Sarea (ETS)
- Bilboko Portuko Agintaritza
- Ekologistak Martxan Bizkaia Elkarte
- Eguzkizaleak

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organismoari, honako hauek dituela: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. - Ebazpen hau Sestaoko Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 4a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,

Javier Aguirre Orcajo.